

Arrasate

UPRESS

1996ko
Maiatzak 3
318. zenb.

BESTEAK ESANA

Javier Ruiz
de Munain

KULTURA

Patxi
Uribarren

IKUSPEGIA

Rufina
Olasagasti

Mondrako Emakumeak

Emakume txapeldunak



Pentsakera estrategikoa landuz.

Partizipazioa bultzatuz.

Gizartean eraginez.

Etorkizuna egiten.



SAN VIATOR
IKASTOLA

Arrasate Pasealekua, 10

ARRASATE

Tfnoa: 79 04 11

Matrikulazio epea zabalik maiatzaren 2tik 17ra.

Dirua ala gizakia lehenengo

Maiatzaren bata dela eta entzun eta irakurritako batzuk sortutako kezka azaldu nahi nuke.

Egunero entzun eta ikusten denez, konpetibitatea azaltzen da orain telebista, prentsa eta irratan: merkatu bakarra egin dela eta hor saldu ahal izateko konpetitiboak izateak justifikatzen du dena.

Eta merkatu bakar hau mundu guztian berehala gauzatu ahal izateko, hor daude komunikabideak. Informatikaren laguntzaz, berehala heldu daitezke nonahira: une batean burutu daitezke lanleku eta kapitalen lekualdaketak.

Estatu handienak baino balore handiagoak darabilzkite konpainia hauek, errenta-titulu, akzio eta obligazioetan. Eta demokraziari dagokion inolako kontrolrik gabe. Dirua lortzea da beren helburua eta ez zaie axola gizartearen ongizate publikoa, askatasuna, berdintasuna.

Eta aginte ekonomiko hau edukiaz gero, horren legitimitatea behar gero. Horretarako bereganatu nahian dabilta komunikabideak. Honela, denona egitea lortuko dute beren helburua: konpetibitatea dela inportanteena sinistaraztea.

Gizarteko onarpena lortzeko planteiamenduan, iristen dira baita unibertitateetara ere, programa batzuk patrozinatuz. Eta beraiek baldintzatzen dute ere energiaren aukera, industriaren joera eta beste herrialdeekiko harremanak, adiskidetasunezkoak nahiz gerrarakoak.

Hau al da bada ekonomiaren eginkizuna? Hainbat pentsalariren ustez, ekonomiak herri bateko gizarte, ingurugiro, kultura eta hizkuntzaren zerbitzari izan beharko luke eta ez estatu indartsu, multinazional eta finantza erraldoien interesen defendatzaile.

Eta herri bakoitzak inguruko herriein benetako lankidetzeta eta elkartasun harremanak garatu nahi baditu, elkar onartu beharko dute lehendabizi. Hau ez dugu lortuko ordea geure artean gatazka sortzen duten gaien antolaketa birrindu eta antolaketa modu berri bat asmatzen ez badugu. Gizartearen antolaketa eta elkarrekiko harremanak sustraitik aldatu beharko genituzke horretarako, erantzun berriak prestatuz.

RUFINA OLASAGASTI



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Koiboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Soginak, Kopl, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaloko argazkia: Beñardo Kortabarria

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 08 07

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
 Tfnoa: 79 15 65

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
 Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

BAZAR
 TOKI ON

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

Erdiko Kale, 7
 Tfnoa: 79 91 64 • ARRASATE

FELIPE
MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
 Tfnoa: 79 13 78

TTUKUN

Fotokopiak
 Enkuademazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduktzioa
 Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
 Tfnoa: 79 46 62

.....

Uribarri auzoko jubilatutak eta aurrekontutak

Uribarri auzoko jubilatutak bat naiz eta zoritxarrez batzordean nago. Hiru urte dira segurtasuneko gizonen lokala ikusi ondoren lokal horrek ez zuela horretarako balio esan zutela. Guretzat ez zen sorpresa izan, bagenekien lokal horren berri han egunero biltzen ginenok.

600 bazkide gara Uribarri eta beste 400 jubilatutak gora izenik eman gabe daude, tartean, errenak, gurgildun aukietan eta abar dabilen jendea, eskaileratan bakarrik ibili ezin den asko.

Partidu edo talde denetako jendearekin hitzegin dugu hiru urte hauetan, lokal berri bati buruz, denak baiezkoa eman ziguten eta guk ere gure bazkideei berdin.

Aurrekontuetako txostenean sartuta zegoela eta berehala eskuratzeko itxaropena genuen, baina hirukoa deitzen dioten talde horrek, bi hilabetetan aurrekontutak lantzen zituen batzordeetara joateari uko egin eta txosten berri bat aurkeztea erabaki zuen, eta bertan beste gauza batzuen artean, guretzat zegoen diru kopurua kendu.

Apirilaren hemeretzian plenoa konbokatuta zuen udalak aurrekontuei buruz. Gu ere han ginen, gertatzen zena jakiteko asmoz. Neuk, egia esan lotsa eta pena pasa behar izan nuen gure herriko ordezkariak elkarrekin ulertzeko duten ahalmen ahularengatik.

Gure asmoak aurrera ateratzeko, gu guztiz engainatu gaituzte eta guk batzordekideok, bazkideak engainatu ditugu. Gelditzen zaigun irteera bakarria kargua uztea da, ez garelako aurrera ateratzeko gai izan. Nere

iritziz, Udaletxeko batzuk ere berdin egin beharko luke.

ANDRES GABILONDO

.....

Hirukoaren sinesgarritasunaz

Hirukoak aurrekontutak egiterakoan, aurretik sinaturik zituen hainbat akordio ez ditu errespetatu eta aurrez agindutako zenbait partida kendu egin ditu. Horri berbia jatea deitzen zaio. Orain orde, aho betez eta batez ari dira jubilatuei eskaintzen etorkizunerako, gaur ematerik nahi izan ez dutena.

Nork sinistu katxondeo hau?

M.S.

.....

Errepresioa ez da bidea

Euskal presoak txapeoaren 3. txanda burutzen ari direnean, berain Euskalerriratzea eskatzeko; Valentín Lasartek Ertzantzaren esku tortura psikologikoak salatu dituen; Navalcarnero presoak gose greba bat aurrera eramaten ari direnean giza eskubide minimoak errespetatu diezaieten; isolamendua, jipoiak... egunerokotasuna nazkagarri bat dutenean, Estatu frantsesean preso dagoen Josu Urrutikoetxeak apirilaren 15ean gose greba bat hasi zuen. Estatu frantsesak Euskal Herriaren aurkako estrategian lehen mailako paper errepresiboa jokatzen du, konziente izanik

espainiar poliziaaren esku entregatzen badu, tortura basatiak jasango dituela, Domingo Aizpuruak pairatu zituen lekuko dira. Baina ez da hau entrega edo estradizio arrisku hau duen preso bakarra, badira asko eta hauen artean Josu Arkauz, preso arrasatearra.

Eta guzti honen aurrean zer egiten dute PNV bezalako alderdiek, hau da, euskal herritarren giza eskubideak defendatzen dituztela esaten dutenek? kartzelero baten askatzea eskatu! Horregatik herriak izan behar du estradizio hauek salatu eta mobilizatu behar duena!.

Bukatzeke, gure elkartasuna epaitzen ari diren orretar 3 gazteei, Ertzantzak aukeratutako "cabeza de turco" batzuk besterik ez direlako.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Euskal Herria Askatu!


Arrasateko Amnistiaren aldeko Komitea

Zuzenketa

Joan den asteko Fotozharrean hanka sartu genuen abizen batean, Petronila Gonzalez jartzen zuen tokian, Petronila Olmedo jarri behar zuen eta.

Bestalde aipatu jakingarri gisa, maestren izena M^a Jesus Apolinar zela.

Badakizu zer gertatzen ari den udal aurrekontuekin?



Leopoldo Cabrejas
Jubilatua
(57 urte)

Egia esan ez, ez dut horri buruz ezer entzun.



Encarna Soriano
Langilea
(41 urte)

Baiez, ez dakit ezer, ez ditut egunkariak irakurtzen eta.



Mikel Bazanbide
Langilea
(39 urte)

Ideiarik ere ez daukat. Kanpoan ari naiz lanean eta ez diet kasu gehiegi egiten hemengo kontuei.



Pablo Zubizarreta
Langilea
(57 urte)

Zurrumuruak entzun ditut bai, Udaletxeko taldeen artean desadostasunak ote dauden edo.



Carol Arribas
Etxekoandrea
(30 urte)

HB eta tripartitoaren artean borroka dagoela, batzuk aurrekontu batzuek daukate eta desberdina besteek. Txarto iruditzen zait, tripartitokoek aurrekontuetan parrokiaren diru asko nahi dute sartzea eta beste gauza batzuren beharra ere badago.



Atxen Castellano
Langilea
(41 urte)

Ez, ideiarik ez, ez dut ezer entzun.



German Moreno
Jubilatua
(56 urte)

Ez nago konforme, gastu asko daude eta hemen bideak ondo garbitu eta ondo konpondu beharra dago.



Marilu Garciaetxabe
Langabezia
(50 urte)

Ideiarik ere ez daukat, denborarik ere ez daukat eta.



**Zure OPEL
banatzailea
ARRASATEN,
zergatik joan
urrunago?**

OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltaldea79 09 00
 Udaltaldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 3
 Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.

Larunbata 4
 Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale.

Igandea 5
 Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale.

Astelehena 6
 Gaueko 10ak arte: Amezuza. Santamaina.
 Egunez eta gauez: Cuellar. Bergara.

Astearte 7
 Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.

Asteazkena 8
 Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.

Osteguna 9
 Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 Egunez eta gauez: Puy. Bergara.

3 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Heat" 7etan eta 10etan.
- **KONTZERTUA ATERPEN**
 Las brujas taldearen kontzertua Aterpe kafetegian.
 Partaideak: Javier Sun eta Sr. No. Gaueko 10.30etan.
- **CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA**
 6etan futbol partidua ezkonduen eta ezkongabeen artean.
 8etan jaki estremeñoen dastaketa. 10etan flamenco jaialdia.

KARTELEN ERAKUSKETA

Harreman taldeak antolatuta Hirugarren Munduari buruzko kartelen erakusketa Monterronen maiatzaren 6tik 12ra. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

HERRI URRATS

Maiatzaren 12an Senperen ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du AEDk. Autobusa goizeko 8etan irtengo da Zaldibartik. Prezioa 1.200 pta. Hire eta Iturriotz tabernan salgai. Bezperan berri, beste autobus bat antolatu dute laguntzera joan nahi dutenentzat. Prezioa 1.000 pta.

4 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "El ladron de bagdad" 5etan.
 "Heat" 7etan eta 10etan.
- **CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA**
 10.00etan futbito txapelketako finala. 12.30etan ohorezko dama eta erreginaren auke-raketa. 13etan luntxa. 3etatik 5ak arte umeendako jokuak. 5etan folklore jaialdia. 10etan "Kaixo" orkestrarekin dantzaldia
- **MASAIA HASERAKO IKASTAROA**
 Maiatzaren 4-5 eta 11-12an. Larunbatetan egun osoan eta igandeetan goizez. Emalea: Jose Luis Armendia. Orduetgia taldeen arabera.
- **ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA**
 "Euskal presoak Euskal herrira, estradiziorik ez" lemapean manifestazioa arratsaldeko 7.30etan Seberon hasita.

ARGAZKI IKASTAROA

Maiatzaren 11tik ekainaren 15era hastapen mailako argazki ikastaroa ASak antolatuta. Larunbat goizetan 10etatik 13.30etara. Izenematea 3.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Plaza mugatuak. Izenematea Gazte bulegoan.

FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO IKASTAROK

Lan orientabideko ikastaroa maiatzaren 7an hasita. Klaseak astearte eta ostegunetan emango dira goizeko 9.30etatik 11.30etara. Irakaslea: Nekane Plazaola. Makilaila eta estetika ikastaroak astelehen eta asteazkenetan, goizeko 10etatik 12etara. Irakaslea: Antonia Nagneinas. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59.

5 IGANDEA

- **ZINEA**
 "El ladron de bagdad" 5etan.
 "Heat" 7etan eta 10etan.
- **OTALA ZELAIKO KROSA**
 Goizeko 11etan hasiko da. Seniorek bi buelta eman behar-ko dizkiote Urkuluko urtegiari. Beteranoek, juniorrek eta emakumeek bakarra.
- **BIZIKLETA MARTXA**
 Eguerdiko 12etan Sebero Altube Plazan bizikleta martxa %0,7aren alde. Harreman taldeak antolatuta.
- **UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA ARAMAION**
 11.30etan kalejira txaranga eta trikitalariekin. 11.30etan euskararen aldeko ekitaldia Udaltetxean. 12.30etan kale antzerkia, herri kirolak eta dantzak. 2.30etan bazkaria frontoian. 4.30etan pailazoak: Takolo, Pirrux eta Porrotx herriko plazan. 6etan Maixa eta Itziarrek inerronomia plazan.
- **CORAZON DE ENCINAREN KULTUR ASTEA**
 4etan cuatrola, futbolen eta dominon finalak. 7etan sari bana-keta eta presidentek jaien amaiera adieraziko du.

6 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Heat" 7etan eta 10etan.
- **YOGA IKASTAROAREN HASIERA**
Astelehen eta asteazkenero goizeko 9.45etan, arratsaldeko 6.30etan eta gaueko 8.30etan. Klaseak Jose Luis Iñarra Pasealekua 28-Ban emango dira. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta.
- **MENDI ASTEA**
Diapositiba emanaldia. Gaia: "Gran Torre del Trango, la ruta sin retorno", arratsaldeko 7etan Monterronen. Besaidek antolatuta.

7 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Heat" 7etan eta 10etan.
- **MAIATZA DANTZAN**
Ananda Dansa-ren "Izotzeko poloa" emanaldia Amaia antzokian. Bi saioa: goizeko 11etan eta arratsaldeko 3etan. Ikasleentzat emanaldiak.
- **HARREMAN TALDEAREN MAHAINGURUA**
Gaia: Boliviako egoera (Cochabamba proiektua). Bolivian 20 urtetan egon den laguntzaile batek hartuko du parte. Arratsaldeko 7etan Monterronen.
- **MENDI ASTEA**
Gaia: Amazonasetik Matto Grosorara bizikletaz. Emalea: Jon Arretxe. Arratsaldeko 7.30etan Udaletxeko pleno aretoan.
- **HITZALDIA BERGARAN**
Gaia: Bosnia. Hizlaria: Carlos Taibo. Arratsaldeko 7.30etan Bergarako Kultur Etxean. Komite Internazionalistak antolatuta.

8 ASTEAZKENA

- **BILERA INSTITUTUAN**
BBB eta IEEen matrikula egiteko bilera informatiboa Institutuan. Bi deialdi: arratsaldeko 6etan euskaraz eta 7etan gazteleraz.
- **MENDI ASTEA**
Gaia: Alpeetako ametsa eski gainean. Emaleak: Joxemi Arregi eta Andoni Villar, arratsaldeko 7.30etan Monterronen. Besaidek antolatuta.

9 OSTEKUNA

- **ZINEA**
"Tesis" 7etan eta 9.30etan.
- **ZINE- KLUBA**
"Rojo" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.
- **HARREMAN TALDEAREN HITZALDIA**
Gaia: "Hirugarren munduarekin Elkarkidetzarako laguntza -politika". Hizlaria: Josu Legarreta. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Harreman taldeak antolatuta.
- **MENDI ASTEA**
Gaia: Alaska. Emalea: Gema Arrugaeta. Arratsaldeko 7.30etan Udaletxeko pleno aretoan. Besaidek antolatuta.
- **HITZALDIA OÑATIN**
Gaia: Palestina. Hizlaria: Majed M Dibsi. Arratsaldeko 7etan Oñatiko Kultur etxean. Komite Internazionalistak antolatuta.

MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Auñamendira mendi irteera. Izen ematea maiatzaren 7, 8 eta 9an arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.



MOTOZALEEN VII. KONTZENTRAZIOA

Maiatzaren 11 eta 12an Musakolan motozaleen kontzentrazioa. Arrasateko motozale elkarteak antolatuta.

PINTURA ERAKUSKETA

Monterrongo pintura ikastaroko ikasle helduen erakusketa Harresi aretoan maiatzaren 3tik 12ra. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte

52ko KINTOAK

52ko kintoek bazkaria izango dute maiatzaren 25ean. Joan nahi duten guztiek Angel Dominguez, Luis Gutierrez, Paco Bonet, Julio Marañon eta Rafa Fernandezekin jarri beharko dira harremanetan maiatzaren 15a baino lehen.

“- Arrasateko txapelketan ere jokatzeko duzu, ezta?”

- Bai, aurtengo Pepeluz taldearekin dihardut eta ez gara bigarren fasera gutxiarik sailkatu.

- Zein txapelketa da hobe?

- Arrasatekoa, han baloi onekin jokatzeko dira partidu guztiak. Bergarakoan, berriz, baloiak oso gaizki daude. Arrasaten partiduak herri erdian jokatzeko dira eta ikusle gehiago joaten da partiduetara”.

Xabier Olabarria, 1996-4-26.

BERRIGARA

“Nik bidaia guztia emozionatuta egin nuen.

Izugarria izan zen. Jende guztia bazterrean: baserritarrak, umeak, emakumeak... Zenbait herritan geratu egin ginen. Nire gurasoak Arrasateko Zigarrola auzokoak dira eta han gelditu ginenean lore sorta bat eman nien”.

Inaxio Kortabarria, 1996-4-26.

Egunkaria

“kontsumitzaileekin Euskadin egiten ari garena, Santander, Caceres edoeta Guadalajaran ere egiten dugu. Ezin ginateke alde batetik kontsumitzaileen kooperatiba izan, kontsumitzaileak erabakiak hartzen dituzten kooperatiba alegia, beraiekin ez baditugu ekintza horiek burutzen. Guretzat kontsumitzailea da garrantzitsuena eta ideia hori beste toki batzuetara ere eraman egin behar dugu, horrela koetan ez dagoelako Euskadin orain 27 urtetik garatzen ari den kultura hori”.

Constan Dacosta, 1996-4-29.

EL MUNDO
en PAIS VASCO

Zergatik %0,7aren aldeko kanpaina?


Azken urteetan egin dugun bezala, maiatza heldu da eta Harremarek %0,7aren aldeko sentsibilizazio kanpaina antolatuko du.

Kanpaina horrekin, Udalak oraindik ere hirugarren mundurako %0,7a ez duela ematen gogoratu nahi dugu. Azkenaldian Udalarekin izan ditugun harremanak interesgarriak izan dira eta badago hirugarren munduarekiko sentsibilizaziorik, baina Arrasateko Udala %0,7tik urrun dago. Horregatik, laguntza hori gehitu eta inguruko udalek egiten duten bezala, Eskoziatzak adibidez, %0,7a hirugarren mundurako gorde dezala eskatu nahi dugu.

Baina administrazioari bakarrik ez, herritarrei ere eskatu nahi diegu euren poltsikotik dirulaguntza eman dezaten. Gehienok administrazioak %0,7a eman dezala aldarrikatzen dugu, baina norberaren poltsikoetatik emateko gertu ez gaude. Kanpainarekin, herritarrengandik datozen laguntzak ere gehitu nahi ditugu.

Gainera, enpresak ere animatu nahi genituzke euren irabazietatik %0,7a eman dezaten. Izan ere, Harremanen helburua ez da administrazioari laguntza eskatzea bakarrik, herritarren eta enpresen laguntza ere eskatu nahi dugu.

Gu bezalako taldeendako %0,7a helmuga bat da eta era berean slogan bat. Badakigu kopuru hori emanda ere hirugarren munduko arazoak ez direna konponduko, baina gure helburua gizarte arazoak ohartaraztea da.



Jabier Ruiz de Munain
Harremareko kidea



OINETAKOEN AUTOZERBITZUA
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

PSE-EEK alkatearen dimisioa eskatu

“Arrasateko alkatea ez da aurrekontuak adosteko gai izan” esan zuten kide sozialistek joan den ostiralean emandako prentsaurrekoan, eta horregatik, Xabier Zubizarretaren dimisioa eskatu zuten. EAJrekin eta EAekin adostutako aurrekontuetan euren gustokoak ez diren dirulaguntzak zuzendu behar izan dituztela, baina lur sail industrialaren gaiean denak bat etorri direla gogoratu zuten sozialistek.

Uribarriko jubilatuen egoitzari dagokionez, auzo horretan adin desberdineko jendearendako izango den zentru bat eraikitzearen alde daudela esan zuten. Plenoari buruz, berriz, gaizki informatutako jendea zegoen sozialisten ustez.



ELA eta LABen ekintzak

Asteazkenean Langilearen Eguna izan zela eta, aurreko egunetan hainbat ekintza egin dute Deba Garai-ko ELAk eta LABek.

Joan den ostiralean, Arrasaten dauden aldi baterako lan enpresetara joan eta euren aurkako protesta ekintza egin zuten. Sindikatuetako kideen ustez langileen trafikante hutsak direlako eta gazteen esplotazioa bultzatzen dutelako burutu zuten protesta ekintza. Zapatuan, Narvaiza lantegiko komitearen deialdiarekin bat eginez, manifestazioa egin zuten Bergaran. Astelehenean, berriz, auto karabana egin zuten Eskoriatzan hasi eta Oñatin bukatuz.

jolas egiteko aukera izan zuten. Bazkide eta irakasle-ek parte hartu dute aurrera jarraitu beharreko bidea finkatzen duen proiektuan.

Bi edukiontzi erre

Zapatua eta igandea arteko gauetan, Zaldibar frontoiaren ondoko edukiontzi bat eta San Andres auzoko beste bat erre zituzten. Zubillagako suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera.

Elisabeth Altube hil

Sebero Altube arrasate-arraren iloba, Elisabeth Altube, joan den astean hil zen Hendaian. Elisabeth Altubek zaindu zuen Sebero azken hau zendu zen arte. Emakume hau Ramón J. Senderrekin ezkondu eta egon zen, eta beranduago paristar batekin. Arrasaten hil nahi zuela esaten zuen betik.

Arrasatetik “Orbita Fagor” aireratu

Azken urteetan egin duen bezala, joan den astean Fagor Elektragailuak kooperatibak “Orbita Fagor” izeneko programa aireratu zuen Arrasatetik. Satellite bidez egin zen saioan, Fagorrek bere produktuen informazioa eman zien estatuko 5.000 banatzaileari. Plato nagusia Fagorren kokatua bazegoen ere, Bartzelonan eta Madrilen zeuden gonbidatuekin joan-etorriko komunikazioan zeuden.

Iñaki Gabilondo kazetari ezaguna aritu zen moderatzaile lana egiten.

arazo larriena langabeziadela esan zuten.

CCOOen prentsaurrekoa

Langileekiko elkartasuna eta ordu extreko desadostasuna, izango zirela Maiatzaren Ieko aldarrikapenak azaldu zuten Langile Komisoietako kideek joan den ostiralean. Horrez gain, azken urteetan langabeziak behera egin badu ere, gehienek aldi baterako kontratua dutela, eta horregatik, Deba Bailarako

Hezkuntza proiektua aurkeztu

San Frantzisko Xabier ikastolaren hezkuntza proiektuaren berri izan zuten zapatuan ikastolako bazkideek. Hezkuntza proiektuan ikastolak zer eta zelakoa izan nahi duen jasotzen da. 500 bazkide hurbildu ziren larunbateko ekintzara, eta bitartean, gaztetxoek euren antolatutako ziren ekintzetan

JAIOTZAK

- David Mateos Martin. Apirilaren 3an.
- Ander Murillo Merino. 20an.
- Jon Aranburu Goirizelaia. 21ean.
- Aitor Merino Olivenza. 21ean.
- Maria Iñarra Rojas. 23an.
- Maialen Zubizarreta Arregi. 22an.

HILDAKOAK

- Aurelia Riviere Ormaetxea. Apirilaren 23an. 90 urte.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

• **Txitxinpe** •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



* Mikel Arana

Besaide mendizale elkarteak

Hiru urte pasa dira lehendakari postuan nagoenetik eta erretiratze ordua pixka bat lehenago heldu zait lan merkatuak malgutasuna behar omen duelako; beti esan ohi dut jende berari tokatzen zaizkiola lanpostu aldaketa horiek. Artikulu hau irakurri orduko eta Besaide mendizale elkartearen estatutoak horrela agintzen dutelako ez ohiko batzar nagusia pasatuta egongo da. Helduko den lehendakari berriari animoak helaraziko nizkioke lan atsegina aurkituko duelako eta lan taldean giro aproposa. Besaide mendizale elkartearen lehendakariaren lanak zeintzuk diren azaltzeko orduan betebeharrak zehatzki ez zait bururatzeko; honek ez du esan nahi lanik ez duzunik edo lanez leporaino zaudenik. Aipatuko ditut ideia batzuk eguneroko

jardunean kontuan hartu beharrekoak erabaki garrantzitsuen aurrean niri baliogarriak gertatu zaizkidanak.

Besaide mendizale elkarteak 1.800 kide ditu, horietatik 800 mendi federazioan alta emanda, hau da, kolektibo handi baten lehendakari zarela. Besaide mendizale elkartearen helburu bat mendizaletasuna piztea da eta Arrasateko mendizaleei zerbitzuak eskaintzea, hala nola, irteerak antolatu, materiala uztea alokairu baten

.....

“Hau da lehendakariak elkarte barruan duen lanik garrantzitsuen, koordinazio lana”

truke, txabolaren zerbitzua eskaintzea... Beste puntu garrantzitsua zera da mendizaleoak naturarekin errespetoz jokatu behar dugula, alegia Besaidek badu hezitzaile lana ere. Aktibitateak antolatzerako orduan baloratu behar dugu eragiten ditugun kalteak eta ezabatu praktika erasokorrak. Irizpide garbiekin jokatu muga non dagoen jakiteko. Aipatutako ideiekin lehendakariak koordinazio lanak egingo ditu Besaide mendizale elkartearen dauden atal desberdinetan. Hau da lehendakariak elkarte barruan duen lanik garrantzitsuen, koordinazio lana. Lehendakariaren beste betebeharrak bat prentsa-irratiko kaso egitea da.

Nire ustez klabe horiek dira Besaideko lehendakariak kontuan hartu beharko litzukeenak. Gaur egun Besaide mendizale elkarte barruan lanean ari direnak atal desberdinetan, lan-talde emankorra osatzen dute, giro ona sortuz eta emaitza positiboak lortuz. Lan talde honek Besaideren motorra osatzen du.

Amaitzeko arduratzen nauden bi gai aipatuko ditut denboran laburrean aho guztietan erabiliko direnak. Eman diezaiozun gai bakoitzari erantzun aproposa, agente guztien irizkiak kontuan hartuz, garapen hitzak zentzu zabala duelako eta errekurtsio naturalak ez direlako mugagabeak:

- Abiada handiko trenaren proiektua.

- Atxarteko kanteraren auzia.

* Besaide M. E. ko lehendakaria

USTEAK USTE

Pasa berri den maiatzaren lehena aitzaki hartuz, langile eta lan munduko egoerari gainbegiradaxo bat botatzea komenigarri iruditu zait.

Orain arte hainbat borrokaren bidez lortutako eskubideak ez ote doazen gaitzen pixkanaka pixkanaka. Horra hor zabor kontratua, eta hau gutxi balitz ere, gero eta gehiago hedatzen ari da beste lan eskaintza moeta bat. Enpresariak lana eskaintzen dizu, baina zuk autonomo bezala aurkeztu behar duzu zure burua, hau da, ez zara bere langilea, beraz, gizarte segurantzaren autonomo bezala alta eman eta beren kontura lan egiten dutenek betetzen dituzten tramite guztiak beteko dituzu. Gero lana baldin badago emango dizu eta ez dagoenean ez da ezer gertatzen, inoren langilea ez zarenez gero ez dago ez kalera botatzerik, ez langabezia kobratzerik, eta ez ezer. Horretaz gain, lana egiten duzun bitartean ez zaude langile gehienak moduan lan hitzarmen baten babespean, lan orduko kobratuko duzu, ez duzu paga extrarik izango, e.a.

Bestalde, kontratu “normal” bat dugu, gero eta barneratutako dugu kaleratuak izateko beldurra. Ondorioa? Lanpostuari eusteagatik gero eta gutxiagorekin konformatzen gara, eta lan hitzarmena berritzeko garaian ez da presio gehiegirik egiten, zerbait lortzen bada ondo, baina ezer ez lortuta ere (eta ez naiz ari ekonomia arloan soilik) bada ezpada isilik egotera. Ildo honetatik jarraituz, ez da ez kasualitatea urtea hasi denetik hona meatzariren artean lan istripuen ondorioz ematen ari den heriotzen kopurua.

Guzti hau, urte txarrak direla eta, enpresa bera bizi irauteko neurriak direla argudiatzen dute enpresariak, eta kasu askotan horrela izango da baina beste askotan, krisiaren aitzakipean ez dira ez lanpostu berriak sortzen ez eta dagoen langilearen egoera hobetzen.

Egia da guzti hau egungo legeek ahalbideratzen dutela, baina egia da baita ere, langileen erantzuna ez dela beste garai batzutan bezalakoa, ez dago, arlo honetan ere, garai baten izandako borrokarako grina. Ez ote da solidaritate hitza, beste hainbat hitz bezala, edukirik gabe, hutsa, geratu delako? Hori berreskuratzea bai dago langileen esku.

AMAIJA JAUREGI-ARRABURU

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

“EDERTU”
Ileapaindegia

Solarium-ean eskaintza berezia!
10 saio + 2 dohan = 10.500 pta.



San Andres auzoa • Tfnoa: 79 04 28 ARRASATE

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

ALTZARIAK DEKORAZIOA

ARROZTEGIA



ALTZARI ERRUSTIKOAK



San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxa: 76 54 91



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

ANTOLATZEN DU:

- **UDAKO IKASTAROAK**, Ingalaterran, Irlandan, USAn, familia batekin elkarbitzen. 13tik 18ra bitarteko gazteentzat.
- **LAN ESPERIENTZIA**, Ingalaterran, enpresatan, lanean eta familia batekin elkarbitzen.
- **UDALEKUAK**, 10 edo 15 egunekoak, Brinkolan. 11tik 15era bitarteko umeentzat.

**DENBORAZ
ZABILTZA!
Laister epea
itxiko da!**

KLASEAN IKASITAKOA PRAKTIKARA ERAMATEKO MODURIK ONENA.

Informazio gehiagorako zatoz gure bulegoetara, Araba Etorbideko 4. zenbakira edo 79 65 54 telefonora deitu.



**Gure instalazio berriak
bisitatzearren
opari bat daukagu zuretzat.**



**Graduatutako
eguzkitarako
betaurrekoak
9.800 pta.tik.**



**J. Larrañaga Optikak
PACK GAZTE** berria
eskaintzen dizu:

Opari
esklusiboa
**SUPER
POLTSA
OLINPIKOA**

- 6 hilebeterako kontaktu-lente erabili eta botatzekoak.
- 355 ml.ko Renu soluzio bakarreko 2 pote.
- Lenteak gordetzekoak.



17.000 pta.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR

J. Carlos Guerra, 1
ARRASATE • Tfnoa: 79 29 95



Bi hilabete beharko dira etxez-etxe padroia berritzeko.

Azkenengo aldiz padroia berritzeari ekin diote

Atzo, ostegunean, etxez-etxe padroia berritzen hasi ziren Udalak kontratatutako 20 lagun. Azken aldiz 91n berritu zen padroia eta lan hori bost urtetan behin egiten denez, aurten berritzea tokatzen zen. Oraingoa, hala ere, eguneratzen den azken aldia izango da, gaur egun datuak informatizatu egiten direnez ez da lan hori egiten jarraitzeko beharrik ikusten-eta.

Arrasateko 8.700 etxetara joango dira langileak, etxean zeintzuk bizi diren galdetzerara. Eustat-en, euskal estatistika erakundearen eskariz, gainera, etxebizitzari eta bertan

bizi direnei buruzko galdera batzuk ere egingo dira.

Arrasaten bizi baina herrian enpadronatu barik daudenei horretara behartuko zaie padroia berritzean. Ikasten edo lanean daudelako Arrasaten bizi direnek, berriz, ez dira herrian enpadronatzera behartuko. Era berean, herritik joanak baina Udalean baja eman barik dutenak antzemango dira. Datu berriekin herriak zehazki zenbat biztanle dituen ere jakingo da, baina gaur egun Udalean duten kopuruan (24.500 biztanle daude zenbatuta) ez dela gorabehera asko izango uste da.

Edukiontzi gehiago

Beira uzteko 6 edukiontzi eta papera uzteko 50 eman dizkio Diputazioak Deba Garaiko Mankomunitateari. Astelehenean beira uzteko hiru edukiontzi eta papera uzteko beste 16 jarri zituzten Arrasaten. Herriko toki desberdinetan jarri zituzten edukiontziak. Edukiontziak gehituta, ia lortuta dago 500 biztanleko edukiontzi bana edukitzea.

Orain Arrasaten beira uzteko 53 edukiontzi daude eta papera uzteko beste 48.

Kapirixok informazioa eskatu

San Juan Parrokiaren barrualdeari zein itxura emango dioten jakin nahi du Kapirixo taldeak, Deba Garaiko ondare historikoaz arduratzen denak. Horregatik, proiektuaren berri eskatu du Udalean. Arrasateko Udalean Parrokiaren barrualdearen inguruko proiekturik oraingoz ez denez aurkeztu, informazio hori bere eskutara ez dela heldu erantzun dio Udalak Kapirixori.

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

BANKINTEER


A G E N T E A

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute errenteziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretik batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri zitezu probetxa dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74



Aurrekontuen inguruan azalpenak emateko, hirukoak oharra atera zuen joan den ostiralean.

Gobernu taldea erdibideko aurrekontuen bila

Udaleko alderdi guztiak deituta zeuden ostegunean egin behar zen hazienda batzordera. Hazienda batzordeburuak, Ino Galparsorok, esan bezala, bilera horrek helburu bikoitza zuen: hirukoari azalpenak eskatu egin dituzten aurrekontuen inguruan, eta erdibideko aurrekontuak egiteko aukerarik dagoen ikusi.

Euren aurrekontuak desberdinak direla esaten dutela-eta, zaila izango da EAJK, PSE-EEk eta EAK erdibideko aurrekontuak egitea onartzea. Gainera, euren proposamenekin HB eta EBA aurka azaltzen zirelako, hazienda batzordera joateari utzi ziotela

adierazi dute.

Adierazpenok ostiralean ateratako oharrean egin zituen hirukoak. Idatzian, alkatari leporatzen diote Arrasate aurrekontu barik egotearen ardura. Aurrekontuak egiterakoan gastu arruntak kontrolatzen ahalegindu direla, eta horregatik, behin-behineko langileendako diru partida kendu dutela adierazi dute oharrean. Hirukoaren arabera Udaletxeko langileen antolaketa buruzko ikerketa egin behar da, azken urteetan udalaren lan taldea handitu bada ere, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ez direla hobetu uste dute-eta.

Lanbide Hastapenerako izenematea

Mankomunitateak Lanbide Hastapenerako antolatu dituen ikasturteetan parte hartzeko izenematea zabalik dago. Ikasturtea irailean hasiko da eta 97ko ekainean bukatu. Hiru ikastaro daude aukeran: sukaldaritza eta bulego zerbitzua, aroztegia eta igel-tserotza edo mekanika eta elektrizitatea. Izenematea egin nahi dutenek, eskabidea egin beharko dute norberaren herriko udaletxean, maiatzaren 6tik 17ra.

Errepetidorea

Retrevisión enpresak errepetidorea jarriko du Gesalibarko Santats mendiko hegalean, auzo horretarako etxeetan telebista kate guztiak ikusi ditzaten.

Atxiloketa

Azpeitiko auzitegiaren aginduz asteazkenean, gaueko 11.30etan, Roberto Sampedro atxilotu zuen Ertzantzak Arrasaten. Azpeitiko HBk udal hauteskundeetan ateratako kartel batzuegatik atxilotu zutela uste da. HBko prentsa arduraduna da Sampedro.

LAN-ESKAINNTZA

IGERILEKURAKO SOKORRISTAK ATEZAIN-ARROPAZAINAK

- Izaera:** Aldi baterako kontratu laboralak
Baldintzak: Uretako sokorrista Agiria (sokorrista lanpostuarentzat) Eskola-ziurtagiria (atezain-arropazain lanpostuarentzat)
Oinarriak: Musakolako Kiroldegian jaso daitezke.
Eskabideak: Maiatzaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira.



ARRASATEKO UDALA


AUKEA ■
Kirol Erakundea ■
 ■

Udalerri euskaldunak Aramaion

Beñardo Kortabarria

Elkarlanaren filosofian ari dira lanean udalerri euskaldunak. Antzerako arazo asko dituzte, pareko irtenbideak hartzeko gaitasuna dutela konturatu dira, bilduta egonez gero lan hobe egin dezaketela, bai herrietan bertan eta baita administrazioaren aurrean ere. Igande honetan Aramaion bilduko dira, oraingoz Araban dagoen udalerri euskaldun bakarrean. Festa eta jai giroa nagusi izango da Aramaion, baina baita herri txikietan urtero egiten den lana kaleratzeko aukera on bat ere.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak 1988aren bukaera aldera mozio bat aurkeztu zuen udal txetxe batzuetan, bertan egiten zen lana euskaraz egin zedin eskatuz. Udalerri euskaldunetan aurkeztu zen mozio hura; hau da, biztanleen %80tik gora euskalduna zen herrietan. 30 udal txetxe eman zioten baiezko eran-



tzuna eskaera hari. Mozioa babestu zuten udalen arteko bilerak hasi ondoren, baiezkoa emandako asko konturatu ziren akordioa serioa zela, lan handia egin beharra zegoela, eta bi urtera 14 baino ez ziren lanean jarraitzen zuten udalak. Erraz asko egiten dira bai sarritan euskararen aldeko aldarrikapenak; egunero lanak, berriz, aldarrikapena baino gehiago eskatzen du normalean.

Udaltxetean euskara lan-hizkuntza bihurtzea, hori zen udaltxe haiek jarri zuten lehen helburua. Eta zentzu berean eman zuten lehen pausua. Berez, ez zen lortzeko oso helburu zaila, udalerri euskaldunak txikiak izanik, gehienetan udaltxetako langileak bi edo hiru lagun besterik ez ziren izaten eta. Era horretan, herritarrei etxean bezala udal txetxeko harremanak euskaraz izatea ahalbideratzen

zitzaien, euskarazko zerbitzua eskainiz.

Aipatutako herrien elkarlanetik dator UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Aurrez esandako plangintzen antzerakoak sortzea da bere lana, euskara nagusi den bilgune bat eta lurgune bat osatuz. Mankomunitatean edozein herri sartzen denean, udaltxearen azterketa egiten da lehenik, erdaraz egiten den guztia identifikatu eta epe

batzuk jarri egoera gutxina-ka gutxinaka alda dadin. Uda-la bera izan dadila eredu. Ez alperrik, UEMAk neurri handi batean instituzioen izaera du, sorrera herri mugimenduari zor bazaio ere.

Helburu hori beteta, pausu gehiago ere eman izan dira UEMako partaideen artean: Osakidetzarekin harremanak izan mediku euskaldunak jarritzan, banketxeetako langileak euskaldundu, basozaina erdalduna balitz honekin ere berdin... sare euskaldun bat osatu arte horrelako herrietan. Ahaleginak ez dira, dena den instituzioetan geratzen, kaleetako giroa euskalduntzeko plangintzak bultzatu izan dira eta. Zentzu horretan uler daitezke UEMako herrietan egin diren kanpainak. Gehienez jota, pare bat denda eta pare bat taberna egoten dira horrelako udalerrietan, eta horiei eskaintza bereziak egin zaizkie, fakturak euskaraz nola egin irakatsi, menuak euskaratu, jartzten dituzten kartelak euskaraz egon daitezela... gauza sinpleak, baina egunero-ko giroa euskaldundu dezaketanak. Gezurra dirudi baina transmisio kanpaina bultzatu behar izan dute UEMAn, neurri txiki batean horrelako herrietan ere galera bat badagoela konturatu ondoren.

28 UDALERRI

Aulesti, Lizartza, Goizueta eta antzerako herri txikiak osatzen dute UEMA. Handiagoak ere badaude, Leitza, Bermeo edo Zaldibia esaterako, baina gehienak txikiak dira. Deba Garaikoen artean, Aramaio da lehena, Arabako bakarra gainera. Guztira 40.000 biztanle Mankomunitatearen barruan. Partaide izatearren urtero biztanleen araberako kuota bat ordaintzen dute udalerrri guztiek, sinboliko samarra: 150 mila pezeta txikienek eta 600 mila handienek.



Igandean jendez beteko dira Aramaioko kaleak.

Orain artean Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko, gutxi gora behera bizilagun euskaldunen kopurua herritarren %90ekoa izatea derrigorrezkoa zen. Gaur egun %75etik gora edukita eta bi baldintza betez gero posible da sarrera: udaletxean euskara lan-hizkuntza bihurtzeko benetako borondatea, batetik; herrian sare-euskalduna bultzatzeko presuntasuna bestetik. 28 udalerri osatzen dute UEMA oraingoz, baina partaide izateko baldintzak betetzen dituztenak askoz ere gehiago dira, 160.000 biztanlera heltzeraino. Beraz, eta aukera hortxe dagoenez, UEMA handitze bidean sartuko dela pentsa daiteke.

Eredu da' Arrasate euskararen alde egin den eta

Igandean festa handia Aramaion

Egitaraua

- **11.30etan** kalejira, txaranga eta trikilariekin.
- **11.30etan** Udaletxean, euskararen aldeko ekitaldi instituzionala bertako agintari, UEMako partaide, instituzio publiko eta herri mugimenduaren ordezkariekin.
- **12.30etan** kale antzerkia, herri kirolak, dantzak...
- **14.30etan** bazkaria frontoian.
- **16.30etan** pailazoak: Takolo, Pirrux eta Porrotx herriko plazan.
- **18.00etan** erromeria: Maixa eta Itziar herriko plazan.



Iñaki Arregi

(UDALERRI EUSKALDUNEN JAIAREN ARDURADUNA)

“Euskararen aldeko jai handi askotan ez bezala, euskarazko jai eguna izaten da”

Iñaki Arregi UEMA-ko koordinatzailea da. Ermuar honek, udalerrri euskaldunetako ordezkari banaren laguntzaz, izan du igandean Aramaion burutuko den Udalerrri Euskaldunen Egunaren antolakuntza aurrera eramateko erantzunkizuna eta ardura.

- Aramaio UEMA n sartzeta inportantea da?

- Bai, oraingo Arabako bakarra da gainera. Inguruan, dena den, badaude beste herri euskaldun batzuk: Legutio, Otxandio etab. eta horientzat ere inportantea izan daiteke, plangintza bereziren bat egin eta ea piskanaka piskanaka euskaraz funtzionatzen hasten diren.


Bestalde Aramaio hor egoteak Araba zer den eta zer izan den adierazteko ere balio du.

- Eta zergatik Udalerrri Euskaldunen Eguna bertan?

- Orain arte, Bermio, Leitza, Aulesti, Lizartza eta Aizarnazabalen egin izan dugu, eta Aramaio aukeratzea nolabait Arabako euskararen egoera apur bat astintzearen izan da, hango politikoak eta euskaldunak apur bat harrotzearen eta euskararen aldeko lana mugitzen hasten den.

- Zer da egun hori?

- Hasteko ondo pasa-



tzeko egun bat izan daiteke, parrantatxo bat euskaraz egitekoa. Euskararen aldeko jai handi askotan gertatzen dena ez da gertatzen, jende askok erdaraz egitea. Hau jai xume bat izaten da.

Bestetik urtean zehar egindako lana publiko egitea ere bada, administrazioa eta herrien arteko lan horren agerpen publiko bat.

Aurten gainera, gauza berezia egingo dugu, herri bakoitzak duen produkturik adierazgarriena eramango du eta, bi gauza adierazteko: bata, euskararen kalitatea horrelako herri txikietan gordetzen dela; bestea, herri txikietan bizitasun handia dagoela, kultura propioa, dantzariak direla, herri-kirolak, etab.

- Zenbat jende espero

duzue?

- Ideiarik ere ez, baina ezin daiteke konparatu euskararen aldeko beste jai erraldoi horiekin. Badakit Aramaio beteko dena, baina egia esan Aramaio betetzeko ez da jende asko behar, nahikoa dira 1.000-2.000 pertsona.

- Askok kostatzen da horrelako jai bat antolatzea?

- Diru aldetik ez, gehiena bertako jendeak egiten du eta, baina antolatzea, bai. 28 udalerriren arteko koordinazioa lortu beharra dago, publizitate kanpaina egin, inguruko herrietako jendearekin egon, etab. Hilabete inguru daramat hau antolatzen, udal bakoitzeko zinegotzi batekin noski, bakoitzak bere herrian landu dezan gaia.



egiten ari den lanaren ondorioz, baina ez luke une honean UEMAko partaide izateko aukerarik. Benetako borondatea argi egon arren, oraindik biztanle euskaldunen kopurua ezarrita dagoen %75eko horretatik oso urrutiti dabil.

Euskararen egoera izan zen UEMAren abiapuntu. Dena den, elkarrekin egon eta arazo amankomunak badi-tuztela konturatuta, proiektua beste esparru batzuetara hedatzen ari da. Izan ere, kultur aukeren eskasia, eskola maparen eragina, babes-tutako etxebizitzak egiteko zailtasunak... herri txiki gehienetan ondo ezagutzen dituzten arazoak dira. Konponbidea, jakina, lehenago irits daiteke denen artean lana eginaz gero.

Mondrako Emakume taldea liga irabazi eta gero bigarren mailan

Mondrako emakume taldeak azken urteotan egindako lanak emaitza ezin hobeak eman ditu 95-96 denboraldian. Hasieratik jarri ziren sailkapeneko buruan eta toki horretan jarraitu dute azken ihardunaldira arte. Zapatuan Urretxuren kontra nahi eta nahiez irabazi behar zuten eta Juanina Garaiek zuzentzen duen taldea 5 eta 0 nagusitu zen. Garaipen horren ondoren bigarren mailara igotzea lortu dute multzoko onenak direla erakutsi ondoren. Jokalariak bereziki Juanina Garai entrenatzaileari eskertu nahi diote euren gan jarri duen konfidantza eta egindako lanagatik. Azkenean eta ekinaren ekinenez familia handi bat osatzea lortu dute eta familia horrek zuzendaritza aldetik laguntza handirik jaso ez arren, bikain erantzun du euren helburua errealtate bihurtuz. Dena dela esan behar da partiduz partidu jarraitzaile peto eta fidelak ere izan dituztela, jokalarien guraso eta lagunek ez dute denboraldian huts egin eta euren animoak garrantzitsuak izan dira azken partidu esanguratsuenetan. Mondrako emakumeek une honetan eta oztopo guztiak gaindituz lortutakoa lortu dutelako zorion beroena merezi dute.

Liga bukatu bada ere, oraindik kopa dago jokuan. Bergara, Oiartzun, Bortziriak, Lagun Onak eta Eibar izango dituzte aurrean eta jokalariek esaten duten moduan "kopan ere finalera heldu nahi dugu".



Garaipena lortu eta gero, jokolari, entrenatzaile eta euren jarraitzaile petoek afaria izan zuten eguneri bukaera borobila emateko.

Urbina Maltzagak ezin Pamesaren kontra

Urbina Maltzagarentzat talde sendoegia izan zen Pamesa Valencia eta asteazkenean jokaturako neurketan galdu egin zuen 64 eta 76. Lehen zatian ezin jokuan sartu eta ezin puntuak lortu ibili ziren arrasatearrak. Valentziarrak berriz, joku bikaina erakutsiz berehala jarri ziren aurretik markagailuan. Bigarren zatian hobeto jokatu zuten Samaniegoren mutilek baina erreakzioak ez zuen balio izan norgehiagoka irabazteko. Zapatuan Montehuelva izango da Urbina Maltzagakoen aurkaria arratsaldeko 6etan Huelvan jokatuko den play offeko hirugarren partiduan. Andaluziaren helburua ACB ligan jokatzeko da eta horretarako talde sendoa osatu dute. Euren jokua Ray Smith jokalaria amerikarrea oinarritzen da. Smith iaz Eba ligako saskiratzaille onena izan zen eta



Andaluzian izango dute hirugarren partidua.

aurten bigarren onena. Beraz pisu handiko jokalaria da. Horrez gain, Luis Barroso, Miguel Angel Vilchez eta Jabier Martin donostiarrak kontuan hartzekoak izango dira. Samaniego Smith-en jokua geldiarazteko boskote onena kantxaritzen saiatu beharko da. Amerikarra kontrolpean izanez gero,

partidua irabaztea samurragoa egingo zaie eta. Arrasateko ordezkariak zapatu goizean hegazkinez abiatuko dira Andaluziara eta trenegingongo dute itzulerako bidaia. Baja bakarra Carlus Groves izan daiteke, gaintzekoak gertu izango dira partidua aurrera ateratzeko.

Arrasateko Rugby taldeak 25 urte bete ditu

Arrasateko rugby taldeak Euskal Ligara igotzea lortu du aurten. Iaz galdutako maila aurten berreskuratzeko gauza izan dira Patxi Gorosabelen mutiak. Hauentzat dagoneko bukatu da denboraldia. Dena dela, Rugby taldea sortu zenetik 25 urte igaro direnean zilarrezko eztaiak ospatzeko egitarau zabala prestatu dute ondorengo hilabeteetarako. Maitzaren 18an kadete mailako rugby topaketa bat izango da Arrasaten. 25an infantilena eta ekainaren batean jubencil mailako hainbat talde etorriko da



txapelketa berezi baten parte hartzeko. Partidu garrantzitsunea berriz, ekainaren 8an jokatuko da. Euskadiko

Selekzioak Bordeleko Begles taldearen kontra neurtuko ditu indarrak Garagartzako rugby zelaian.

LABURRAK

ATE taldeak bi lasterketa asteburuan

Arrasateko Afizionatu mailako taldeak bi lasterketa izango ditu zapatuan. Berriatuako XV San Gregorio sarian hartuko dute parte taldeko lau txirrindularik, Azkorra, Askasibar, Aperribai eta Lizasok. Lasterketa elite eta 23 urte azpikoentzat izango da eta arratsaldeko 4etan hasiko da. Lizarra sarian ere egongo da Arrasateko ordezkariarik. Zapatuan arratsaldeko 3.30etan hasiko da eta Estevez, Malgañon, Fraile, Sastre, San Miguel, Larrea, Zugasti eta Frutos joango dira besteak beste. Domekan bestalde, Azpeitiako Urrakiko igorran izango dute zita. Goizeko 9etan hasiko den lasterketara Jon Aperribai bakarrik joango da. Igoera oso nekettsua ei da eta txirrindulari hauentzat afizionatu mailan lehen urtea dela kontuan izanda, esperientzia gehien duen txirrindularia eramatea erabaki dute.

Zikloturistak

Domekan irteera egingo dute Arrasateko zikloturistek. Ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Durana, Gasteiz, Estibalizko Santutegia, Gasteiz, Landa eta Arrasate, guztira 89 kilometro. Goizeko 9.15etan elkartuko dira Monterronen.

Mondra eta liderra aurrez aurre

3. mailako Mondrak Zalla liderraren bisita jasoko du domekan Atxabalpen. Neurketa arratsaldeko 4.30etan hasiko da. Zivojevicen mutilek nahi eta nahiez irabazi behar dute.



La Merced ikastetxea Arrasateko Liburutegiak Arrasate irratian antolatu zuen eskola arteko lehiaketaren irabazlea izan da. Arrasateko ikastetxe guztietako ordezkariak hartu zuten parte lehiaketan eta azken zozketan La Merced izan zen garailea. Beraz 7. eta 8. mailako ikasleek Hire eta Gorabeherak oparitutako liburu sorta ederra jaso dute.

IZEN PROPIOAK

● **Jose Mari Zubizarreta** 39 urte eskoriatzarra Fagorreko Egosketako fabrikazio buru izendatu dute. Jose Mari bi urtez Egosketako kalitate osoaren kordinatzailea izan da.

● **Bittor Errarte** arrasatearra Fagorreko Hozkailuetako fabrikazio Burua izango da hemendik aurrera. Egosketako Injineru Burua izan da orain arte Bittor.




Luis Mari Iriondo 12 urtetan Iturbide egoitzako zuzendaria izan eta gero, ekainean jubilatua izan eta bere kargua utzi zuen. Joan zen astean berriz, Iturbide egoitzako

kideek omenaldi beroa egin zioten urte horietan egindako lana eskertzeko. Luis Mari egoitzako koadro dotore bat jaso zuen beste zenbait opariren artean.



San Andres auzoko biztanleak jaietan murgilduta izan dira ostiraletik asteazkenera arte. Gazteek eta ez hain gazteek jai zoragarriak pasatzeko denetik izan dute: kirol txapelketak, jokuak, dantzaldiak eta nola ez, mus txapelketa ere bai. Argazkikoak guztiz kontzentratuta musean jokatzeko harrapatu genituen.



Jorge Olmo 21 urteko arrasatearra Tele 5ko **Ruleta de la Fortuna** saioan hartu zuen parte asteartean. **Jorgek compact diska eta beste zenbait**

sari jaso zituen. Berak esan digun bezala esperientzia benetan polita izan da nahiz eta saioan oso urduri egon zela aitortu.

ETEO

ENPRESA-IKASKETETAKO UNIBERTSITATE-ESKOLA

San Lorentzo, z/g

Tfnoak: 78 13 11 / 78 12 51 • Faxa: 78 31 48



1996-97 IKASTURTERAKO ESKAINZA

IKASKETA ERTAINETAN

LANBIDE HEZIKETA

- Administrazio, Marketing eta Informatika arloak
- Hirugarren Mailako moduluetan
- Gestio-Programatzailea


GOI MAILAKO BATXILERGOA

- Administrazio eta Gestioa

IKASKETA HAUEK BUKATU ONDOREN, UNIBERTSITATE MAILAKO "ENPRESA ZIENTZETAKO IKASKETAK" BURUTZEKO BIDE ZUZENENA

UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK

- Enpresa Zientziak
 - Finantza eta Kontabilitatea
 - Marketing eta Komertzial arloa
 - Informatika



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

Adi!
Maiatzean
eguerdietan
zabalik!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta personalizatuak,
medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan

☎: 79 52 17 ARRASATE





NEREA



Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tfnoa: 79 13 43

**Bainujantzitan
espezialistak.**



**Aretxabaletako
Institutua**

Arrasateko eta Aretxabaletako Institutuak, geureak!!



1996-97 hezkuntz eskaintza

ARETXABALETako Institutua:

- I.E.E.-R.E.M. (1. zikloa)
- I.E.E.-R.E.M. (2. zikloa)
- Batxilergo Tekniko Industriala (B.T.I)
- Heziketa Tekniko Profesionala (L.H.2-F.P.2)
 - Automozioa
- Modulo Profesionala III (M.P.III)
 - Sistema Automatiko Programagarriak

ARRASATEko Institutua:

- D.B.H.-E.S.O.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1. eta 2.a)
- I.E.E.-R.E.M. (1. zikloa)
- B.B.B.-B.U.P. (1. eta 2.a)
- U.B.I.-C.O.U.
- H.S.A.O.L.-L.O.G.S.E. Batxilergoak:
 - Zientifikoa
 - Teknikoa

**Aurreinskripzioak maiatzaren 2tik 17ra.
Eska ezazu informazioa:**

Etxebarri Auzoa z/g.
Tfnoa: 79 79 00
Faxa: 77 09 55
ARETXABALETA

Sta. Teresa kalea, 25
Tfnoa: 79 44 47
Faxa: 79 44 37
ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko 8. ihardunaldia.*
- *Emaitzak eta Sailkapenak*
- *Uribe auzoko eta AEDko nesken futbito txapelketen informazioa.*

Zaldibar txapelketa honen bestez hirugarren fasera heldu da. Asteburuan lehen ihardunaldia jokatu dute eta lasaitasuna izan da nagusi. Zortzi neurketa baino ez dira jokatu eta emaitza batzuk harrigarriak izan badira ere, talde sendoenek garai-pena lortu dutela esan behar. Beste bi ihardunaldi barru fase honi bukaera emango zaio eta ordutik aurrera azken sprinta faltako da 95-96 denboraldiko Zaldibar txapelketa agur esateko



CRISTINA GARCIANDIA Doktoreak

jakinazten dizue
DERMATOLOGIA KONTSULTA BERRIA
zabaldu duela
Arrasaten

Centro Médico Udalaiz (79 44 22)

Ferrerias, 56 • ARRASATE

Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	1	1	0	0	5	2	13
Arrasate Kirolak	1	0	1	0	4	4	9
Betrayer	1	0	1	0	4	4	8
Ac Surcos	1	0	0	1	2	5	8

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Okoretegi Taberna	1	1	0	0	5	0	13
Fosforos	1	1	0	0	5	2	9
Insert Coin	1	0	0	1	2	5	8
Irati STS	1	0	0	1	0	5	8

A Taldea

Argi Ibili 5 - AC Surcos 2
Arrasate Kirolak 4 - Betrayer 4

B Taldea

Fosforos 5 - Insert Coin 2
Irati STS 0 - Okoretegi taberna 5

D Taldea

Adelaida Haizea 1 - Trikiti 1
Kamasutra 6 - Sokoakoak 4

E Taldea

Totem 5 - Perrahotsa 1
Cerv. Leintz 10 - Pub people 3

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Kamasutra	1	1	0	0	6	4	13
Adelaida Haizea	1	0	1	0	1	1	9
Trikiti	1	0	1	0	1	1	8
Sokoakoak	1	0	0	1	4	6	8

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Totem	1	1	0	0	5	1	13
Cerve Leintz	1	1	0	0	10	3	9
Pub People	1	0	0	1	3	10	8
Perrahotsa	1	0	0	1	1	5	8

Hurrengo partiduak

**Larunbata 4
Zaldibar**

10.50 Trikiti - Kamasutra
12.00 Argi Ibili - Betrayer

18.00 Fosforos - Okoretegi Taberna
17.00 Totem - Pub people
18.00 Insert Coin - Irati STS

**Igandea 5
Zaldibar**

9.50 AC Surcos - Arrasate Kirolak
11.00 Adelaida Haizea - Sokoakoak
12.00 Perrahotsa - Cerveceria Leintz

Labur

■ **HIRUGARREN FASEA**

**Hirugarren faseko lehen ihardu-
naldian 58 gol sartu dira jokatuta-
ko zortzi partiduetan. Cerveceria
Leintz 10 golekin talde trebeena
izan da atera begira. Makalena
Irati STS.**

Uribe Auzoko Futbito Txapelketa

A taldea

Kamasutra 5 - Egocentricos 5
Killer Barbies 2 - Zutarri 9
The Barrio 4 - Creature Feature 3
Hirei 3 - Patxi eta Txapi 8
La mosca Gao 8 - Zipote Nukleico 4
Los Urracas 5 - Pasteleria Pepur 3

B taldea

Manchester Fumaited 3 - Eight 3
Nuevo Taberna 9 - Ale Alee 1
Decima Victima 1 - Kamasutra 0
Amo Katxis 5 - Elisabeth 6
Arrasate Zoo 12 - Rayo Batikano 1
Ganba al Whisky 3 - Pobres Rabgers 5

D taldea

Gallinero 3 - Mikel Lasa Seg 3
Diego Antonio 2 - Power Rangers 2
Tandem 2 - Jaleo bila 2
Bortxitzak 12 - Zurt 4
Zig Mutilzaharrak 5 - Betrayer 2
Borroch Roll P 2 - Cartonajes Igamo 5

E taldea

Koka Juniors 0 - Blind 1
Racing Molotov 7 - Euskal Supporters 3
Borroch Roll 0 - Joseba Kon. 1
Pier Nodoiuna 1 - Balon Rojo 7
Nahis eta Gure 0 - Ganbelas 1
Beluga 13 - High Society 5

F taldea

L Tropikana 7 - Leya 8
Dribling 10 - Arsebal DHD 1
Lautherbrunn 5 - Malpikas 3
Cheer Readers 0 - Baneuko 9
Potrosorri 2 - Uglys Txinato 6
Munar Txiki 9 - Interlaken 6

URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

**Larunbata 4
Iturripe A**

10.00 Bortxitzak - Betrayer
11.00 Gallinero - Power Rangers
12.00 The Barrio - Patxi eta Txapi
13.00 Kamasutra P - Zutarri
14.00 Decima Victima - Elisabeth
15.00 Potrosorri - Interlaken
16.00 Pier Nodoiuna - Ganbelas
17.00 Diego Antonio - Jaleo Bila
18.00 Beluga - Blind
19.00 L Tropikana - Arsenal DHD

**Igandea 5
Iturripe A**

10.00 Dribling - Malpikas
11.00 Hirei - Zipote Nukleico
12.00 La Mosca Gao - Pasteleria Papur
13.00 Zigarr. Mutilzaharrak - Cartonajes Iga-
mo
Iturripe B
10.00 Ganba Al whisky - Eighth
11.00 Cheer Readers - Uglys Txinato
12.00 Tandem - Zurt
13.00 Los Urracas - Egocentricos

Iturripe B

12.00 Killer Barbies - Creature feature
13.00 Racing Molotov - Joseba Kont
14.00 Amo Katxis - Rayo Vatikano
15.00 Borroch Roll P - Mikel Lasa Seg
16.00 Lautherbrunn - Baneuko
17.00 Manchester Fumaited - Ale Alee
18.00 Munar txiki - Leya
19.00 Arrasate Zoo - Pobres Rangers

Uribe auzoko sailkapena

A taldea

Zutari	11
Hirei	10
The Barrio	10
Patxi eta Txapi	9
Kamasutra Pro	8
Los Urracas	8
La mosca Gao	7
Killer Barbies	6
Egocentricos	5
Creature Feature	4
Zipote Nukleico	4
Pasteleria Papur	0

B taldea

Eight	12
Nuevo taberna	12
Pobres Rabgers	12
Decima Victima	10
Elisabeth	8
Arrasate Zoo	8
Amo Katxis	6
Ganba al Whisky	5
Ale Ale	4
Kamasutra	4
Rayo Batikano	2
Manchester Fumaited	1

D taldea

Diego Antonio	11
Borbixitak	10
Betrayer	10
Jaleo Bila	9
Cartonajes Igamo	9
Zig Mutilzaharrak	9
Power Rangers	7
Gallinero	6
Borrock Roll P	6
Tandem	3
Zurt	2
Mikel Lasa Seg	1

E taldea

Racing Molotov	12
Balon Rojo	12
Joseba Kont	11
Beluga	9
Ganbelas	8
Koka Juniors	6
Nahiz eta gure	6
Euskal Supporters	5
Blind	4
Borrock Roll	4
High Society	3
Pier Nodoiuna	0

F taldea

Dribling	14
Uglys Txinato	14
Malpikas	10
Leya	8
Munar Txiki	8
L Tropicana	7
Baneuko	6
Potosorri	6
Lautherbrunen	5
Cheer Readers	2
Interlaken	2
Arsenal DHD	2

AEDko Nesken Futbito Txapelketa

Emaitzak

Izenbakuak 4 - Jo ta Bertan gol 0
 Abstibe Subtine 0 - Shaktale 1
 Jo ta Akabau 0 - Zeppaesstandon 4
 Joixon Bertan 5 - Ekin Gogor 3

Hurrengo Partiduak

10.00 Jo ta akabau - Ekin Gogor
 11.00 Joixon Bertan - Zeppaesstandon
 12.00 Abstibe Subtine - Jo ta bertan gol
 13.00 Izenbakuak - Shaktale

Sailkapena

Izenbakuak	10 puntu
Zeppaesstandon	10
Shaktale	8
Joixon Bertan	5
Jo ta bertan Gol	4
Ekin Gogor	0
Jo ta Akabau	0
Abstibe Subtine	-1


Oharra

Joan zen astean atzeratuta geratu zen partidua, Zeppaesstandon - Abstibe Subtine, ostiralean jokatu da arratsaldeko 6etan.

ARGAZKI IKASTAROA

Hastapen maila

- Maiatzaren 11tik ekainaren 15era
- Larunbat goizetan, 10etatik 13.30etara
- ASAren lokaletan (Erguin, 19)
- Matrikula: 3.000 pta.
(1.500 pta ikasle eta langabetuentzat)
- Plaza mugatuak
- Izen emateak Gazte Bulegoan
(Tfnoa: 77 00 65)



ARRASATEKO UDALA

Patxi Uribarren

“3000 Hiztegia”ren egilea

“Europa Hiztegia”ren ostekoa atera berri dute “Bostak Bat” lagun taldeko partaideek, Luis Bareiazarrak, Patxi Uribarrenek, Txomin Solabarrietak, Ricardo Badiolak, Juan Luis Goikoetxeak eta Gotzon Aurrekoetxeak. “3000 Hiztegia” izena duenak, 93.000 sarrera, 130.000 adiera eta 36.000 adibide dakar eta honez gero, salgai dago dendetan. Egileetariko bat Patxi Uribarren aramaioarra da.

— Hiztegi bat egiteak ez dirudi oso lan erraza. Nola egiten da?

— Lehenengo lana gorputza osatzea izaten da. Gu guztiok euskara eskolak ematen aritutakoak gara, bai AEK-an eta baita Euskaltzaindiako titulorako prestakuntzak egiten ere, beraz, horretarako erabiltzen diren zenbait hitz zerrenda kontrolatuta genuen aspalditik. Gure lehenengo helburua euskara ikasten eta sakontzen ari zen jendeari euren lanerako tresna erabilgarri bat eskaintzea zen, eta horretarako hitzen erabilpena oinarritzat hartuz jatorrizko beste hiztegiak jo genuen. Beraz, 15 edo 16 iturrietatik hitz multzo bat egin genuen. Iturri horiek aztertu eta hitz asko errepikatuta agertzen zirenez hitz aukeraketa bat egin genuen.

— ... eta azkenean 93.000 hitz edo sarrerez osatutako hiztegia osatu duzue.

— Oraingo hiztegi honetan aurrekoetan jasota genuen hitz multzo horri gizarteko arlo berezi batzuetan gaur egun euskarak ezinbesteko dituen hitzak sartzea jo genuen. Administrazioan, ospitaletan, nekazaritzan eta-



barretan erabiltzen diren hitz teknikoak. Horretarako, arlo desberdinetan zebilen jendeari hitz zerrenda antzeko bat eskatu genion, baina ez bakarrik hitzez osatutakoa, baita kontestualizatutako zerrenda ere. Horretarako unibertsitateko irakasle talde bat eta talde didaktiko baten laguntza eduki genuen hitz multzo horiekin koadroak etabar egiteko. Jakina, gizarteko arlo desberdineko hitzak etabar hiztegian sartzean, 93.000 sarrerako kopurura heldu ginen, baina ez pentsa hiztegi guztiz osatua denik, hori ia ezinezkoa da eta. Gure asmoa hiztegi didaktiko aberatsa egitea izan da.

— Euskalkietako hitzak ere kontuan izan dituzue, ezta?

— Bai. Euskalkiak beti

izan ditugu kontuan, markarik ez diegu jartzen baina euskal hitzak dira eta euren zeregina daukate. Leku zabala eman diogu tradizioz jasotako hitz askori. Gainera euskalki batzuetako hitzak nahiz esaera eginak Euskal Herri osora zabaldu dira. Hitz eta esaera horiek altxorak dira eta gorde egin behar ditugu.

— Zerk bultzatu zintuzten hiztegi berri bat egitera? Aurrekoak zahar geratu dira?

— Euskara gaurko gizarte berrira moldatu nahian ari da etengabe. Europa Hiztegia egin genuenean, irakasle talde batek esan zigun ea zergatik ez genuen hiztegi hori oinarritzat hartuz euskera/erderazko eta erdera/euskerazko hiztegi moderno bat egiten. Euskaltzaindiak hartutako

ortografiaren azken erabakien aldetik, aurreko hiztegia atzeratuta geratzen zela esan zigiten, beraz, gaur egun beharrezkoa zela bide horiek azken mugaraino eramatea. Kezka horiek bultzatuta, azken bi urte t' erdiak hiztegi berria egiten eman ditugu.

— Gaztelania/Euskera atalean nola ebitatu dituzue erderaren kalkoak?

— Hor bi gauza hartu ditugu kontuan: Hiztegi 2000ak egiten ez zuen moduan, adierak zehaztu dugu. Metodologia berriz Placido Mugikak bere hiztegian erabili zuena hartu dugu guk, hau da, berak hitzak zehazten zituen. “Echar”ek adibidez, bi esanahi ditu gaztelean: bota eta jaurti eta bestalde, “echar una carta”. Beraz, esanahi horiek zehaztu egin ditugu. Bestalde, eguneroko bizitzako euskal hizkuntzan jendeak erderaren itzulpenak bere kasa egiten zituela ikusi genuen, hau da, kalkoak egiten ari zela. Beraz, eguneroko bizitzan erderak sarritan erabiltzen dituen hitzei, erantzun egoki bat ematen saiatu gara.

— Beste hiztegiak ez bezala, generoari aparteko tratamendua eman diozue. Zergatik?

— Talde didaktikoez irakaskuntzan generoari garrantzi handia ematen zaiola esan zigiten, eta hori hiztegiak ere agertu behar zela. Eztabaidatu egin genuen eta kezka hori arazo bihurtu zitzaigun, ordu-rako hiztegia ia egina zegoen eta. Hala ere, goitik behera dena orraztu eta generoa tratatzea erabaki genuen. Horrek lan handia eman zigun baina merezi izan du.

“Leku zabala eman diogu tradizioz jasotako hitz askori, altxorak dira eta gorde egin egin behar dira eta”

Elur-tokiaren eta karobien berreskuratze lanen jarraipena aurten auzolandegietan

Uztailaren 16tik abuztuaren 15era artean bi txandatan banatuta, estatu osotik etorritako 22-26 urte bitarteko 20 lagunek iazko auzolandegian hasitako Udalako elur-tokiaren eta karobien konpontze eta berreskuratze lanak jarraituko dituzte.

Elur-tokia

Elur-tokia Udalako elizatik 1.200 metro ingurura dago, bide baten ertzean. Orain dela 10 urte Alejo Beitia Guridik egin zituen marrazki eta krokisen arabera eta bildu diren dokumentuen arabera, elur-toki horrek 500 urte inguru ditu (baliteke XVII. mendekoa izatea ere). Elur-tokia elurra izotz bihurtu eta gordetzeko erabiltzen zen. Lur azpian egindako planta borobileko putzu bat da, alboko paretak goitik beheraino manposteriazko karearrez estalita dituenak. Putzu horren gainean dagoen oinarri lauki zuzeneko eraikin batek estaltzen zuen elur-tokia eta eraikin horretan zegoen atearen bidez sartzen ei zen izoztegi edo elur-tokira. Txabola harriz



Udalako Elur-tokia.


eginda zegoen eta teilatua egurrezkoa zen. Txabolari itsatsia balkoi txiki bat zegoen eta hortik bi eskailera ateratzen ziren putzura sartzeko. Putzuaren ertzak argi eta garbi ikusten dira. Diametroak 4 bat metro ditu eta sakonera 16 metro

ingurukoa du, bertan 200 m³ elur gordetzeko modukoa. Arbasoentzat "elur-ura" oso gauza preziatua zen eta egun handietarako baino ez zuten erabiltzen. Iazko udara arte putzua gainezka zegoen eta horregatik ezin zen zen inon-

dik ere bertan elur-toki bat zegoenik pentsatu. Aurtengo auzolandegian iaz ekindako lanari jarraipena emango zaio eta elur-tokia zahar-berritu eta seinalatatu egingo da.

Karobiak

Besaidera doan bidetik, auzoko nukleotik 1.500 metrora, hiru karobiren hondarrak ikusi daitezke. 750 metro aurrerago beste karobi bat dago. Karobia kararria kiskalduz kare bizia egiteko erabilitako labe berezi bat zen. Labe sistema hori duela bi mila urtetik orain 40 urte arte erabili izan da. Oinarri borobileko eraikinak ziren eta gehienetan bide bazterretan egoten ziren. Karobiak dau den lekuan egoteak arrazoi logiko bat du, izan ere handik oso gertu daude karobietan lan egiteko behar izaten ziren oinarrizko materialak: lehengaiak (kararria) eta erregaia (arte-egurra). Aurtengo auzolandegian eraikinaren ertzak ondo eutsi, ingurua txukundu eta informazio-panelen bidez seinalatuko da.



AKELARRE

Gozotegia

ORAIN AKELARREN
GOSARIAK GOIZEKO
7.30etatik AURRERA!

JAUNARTZE TARTA
Detaile batzuk
garrantzi handia
dutelako.



Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

Zergatik Irlandara?

1.- Zergatik joaten da horrenbeste jende Euskal Herritik Irlandara ingelesa ikastera?

Ez bakarrik Euskal Herritik, mundu guztiko ikasleak joaten dira. Irlandako edozein herritan ingelesaz gain beste hizkuntza mordera entzuteko aukera dago, gehienbat uda partean.

Askoren ustez Irlandako ingelesa aberatsena da. Irlandarrek garbi eta gozoki hitzegiten dute eta honek erraztasun gehiago ematen dio ingelesa ikastera doanari. George Bernad Shaw-ek Irlandan ingelesik onena hitzegiten dela idatzi zuenean, gehien hitzegiten dela ere gehitu zezakeen, kafe-tegi, "pub" edo kaleetan egoten den giroagatik.

Gainera Irlandan ingelesa irakasteko tradizioa aspalditik datorrenez irakasleen maila eta profesionaltasuna oso altua da. Tradizio hau dela eta, irlandar-



ren erantzuna oso ona da kanpoko ikasleak euren etxean hartzeko orduan.

Guzti honegatik, Euskal Herriko ikasle askorentzat Irlandan da tokirik aproposena ingelesa ikasteko.

2.- Nola aurkitzen da hemengo ikaslea Irlandan?


Oso ondo. Irlandarra berez oso irekia da eta eguneroko harremanetan guztiz atsegina. Gainera Euskal Herriko eta

Irlandako jendearen izakera antzerakoa denez hemengo ikaslea etxean bezala aurkitzen da. Irlandarrak jakingurra haundia du eta beti dago elkarrizketa bat hasteko prest. Honek, egunean zehar ingelesez hitzegiteko aukera asko ematen du.

3.- Zer aukera ematen ditu Parlance-k Irlandan ingelesa ikasteko?

Gure akademia irakasle irlandarrez osatuta dago eta urtero, uztailean, gazte eta helduentzat ikastaroak antolatzen ditugu. Arrasateko ikasleentzat ikastetxe onena aukeratzeaz gain, famili egokienak ere aukeratzen ditugu egonaldia zoriontsua izateko.

Galway, ikastaroaren egoitza, horrelako ekintza bat burutzeko toki aproposena da. Bere hedadura toki interesgarri eta alai izateko nahikoa da eta era berean giro akademiko eta atsegina eskeintzen du. Ingelesa ikasteko Irlandara joatea bururatzen bazaizu ez ezazu inolako zalantzarik izan eta jarri zaitetz gurekin harremanetan 77 06 83 telefono zenbakian.



Parlance

Ferrerias kalea, 11
etxabea
Tfnoa: 77 06 83
ARRASATE

TELEBISTAREN TXOKOA



Euskal Herriko gatazkari buruzko mahainguru sorta ATBn

Datorren asteazkenean "Euskal Herriko gatazkari irtenbidea ematerik badago?" izeneko mahainguru sortari emango zaio hasiera ATBn. Horrela bada, datorren astean "Gatazkarik badago?" gaiarekin hasiko da mahain-

guru sorta gaueko 9etan. Honi jarraituz, maiatzaren 15ean, 22an eta 29an Autodeterminazioa, Presoak eta Tolerantzia gaiekin burutuko dira mahainguruak. Gonbidatuak Arrasateko alderdi politiko eta taldeetako partaideak izango dira.

KOMIKIA



Zagazor.

PROGRAMAZIOA



3 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
9.30etan
Astebete

6 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Astebete (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

7 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

8 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Barrelekaixoka (errep.)
20.00 eta 20.30
Berriak
21.30etan
Mahainguruak: Euskal Herriko Gaztazka

9 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Zinea (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Elkartean
Jentil-Ola

10 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeoko gosoterria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeoko urto gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Etxebizitzak

- **Laukaleen pisua salgai.** Amuebladora Mondragonesa parean. Tfnoa: 71 40 19.
- **Apartamentua salgai Torrevejan,** hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 77 03 85.
- **Bi edo hiru lagun behar dira pisua osatzeko.** Tfnoa: 65 52 98.
- **Laredon apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Playa de San Juanen (Alicante)** apartamentua alokatzen da uztailearen lehenengo hamabostaldian. Tfnoa: 79 49 98.
- **Pisu baten bila gabiltza** bulegoa jartzeko. Tfnoa: 79 79 35. Gaueko 10etatik aurrera.
- **Pisua salgai San Antolinen.** Tfnoa: 79 88 53.
- **Salou-n apartamentua salgai.** Tfnoa: 79 38 84.
- **Baserría salgai Gesalibarren.** Guztiz berritua. Tfnoa: 79 97 35. Arratsalde edo gauez.

Lana

- **36 urteko emakumea pertsona zaharrak** gauez zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 44 62. Goizez edo arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Ileapaindegian estilista profesionala** behar da, ostegun, ostiral eta larunbatetan lan egiteko. Tfnoa: 77 09 44. Dei egin goizeko 10etatik arratsaldeko 4ak arte.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Injinerutzako ikasleak,** matematika, fisika eta

marrazkiko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 16 19.

- **OHO eta REMeko ikasleei ingeleseko** klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 79 50 99
- **Frantseseko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 50 99.
- **Hogei urteko neska lan egingo luke** taberna, denda edo etxeetan. Tfnoa: 79 37 68.
- **Taberna lanetarako neska** euskalduna behar dugu Dukiena jatetxean. Tfnoa: (945) 44 50 86.
- **Idazkaritzan diplomadunak lanak** ordenadoren pasako lituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- **Latinezko klase partikularrak** behar ditut. Tfnoa: 79 74 92.
- **Informatiko batek matematika, fisika eta informatikako** klase partikularrak emango lituzke. Mailak: BUP, COU eta FP II. Lanak ordenaderez pasatzen dira. Tfnoa: 79 27 88.
- **Injinerutzako 1. mailako algebrako** klase partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 76 16 11. Eguerdietan dei egin.
- **Esperientziadun neska gaztea** gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka eta goizez. Tfnoa: 79 31 44.
- **Neska bata behar da taberna** baten lan egiteko. Tfnoa: 79 00 34.

Salerosketak

- **Nikon AF, 70-210 mm.** objektiboa salgai. Parasol eta filtroarekin. Tfnoa: 76 52 31. Jesus. Gauez.
- **Bi ardi txakur kume salgai.** Tfnoa: 79 35 68.
- **Biondi konpetiziorako bizikleta salgai.** Shimano konponenteak. Egoera ona. 50.000 pta. Tfnoa: 79 49 30.
- **Volkswagen 1.200 eskarabajoa salgai.** Oso ego-

era onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 07 75. Gauetan.

- **Seat Ibiza, SS-Z salgai** 150.000 pta.tan. Tfnoa: 79 97 38.
- **Kanpingean joateko bost** lagunendako karabana egoera onean salgai. Tfnoa: 79 18 60.
- **Seat Ronda G 5 CL salgai.** Bost atekoa. 12 urte ditu (SS-S). 83.000 km. besterik ez. Oso oso ondo dago. Interesatuak: 79 09 52.
- **R-5 salgai.** ITVa uztailean pasatua. 75.000 pta. Tfnoa: 79 38 97.
- **Nissan Vanette isotermikoa salgai.** Diesela. Egoera onean. Tfnoa: 21 18 55.
- **Ezkontzarako soinekoa salgai.** Gaueko 8etatik 10etara 76 06 53 tfnoan.
- **ZZR-600 motorra salgai.** Extra asko: parrila, alar-ma, depositoa babestekoa, kaskoa... Gauza asko berri berriak ditu, beltza eta larrosa kolorekoa da. Gertu gertu erabilitzeko. Tfnoa: 79 74 61. Juan Carlos.

Denetarik

- **Citroen markako kotxeko giltzak aurkitu dira.** Zureak badira pasa Arrasate Pressetik.
- **Gaueko 7etan Bilbora** norbait badoa dei dezala 79 14 11 tfnora. Ane.
- **Emakumearen neurri handiko arropa** (48-52 tailak) eman egiten da. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 37 68.
- **Independet markako wiski botilak** euskara-ingles hiztegiaren truke. Tfnoa: 228 87 80. Edinburgo-Eskozia. Gorantziak denoi!
- **Emakumezko urre koloreko Seiko erlojua** galdu nuen San Viator Txiki inguruko parkean. Tfnoa: 79 80 25.
- **Urrezko pultsera bat aurkitu dut** San Andresen Amaia izenarekin eta data batekin. Tfnoa: 79 86 06.

Aste Gazte

Udako oporraldiak

- Diputazioak antolatutak, 14-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako egonaldiak leku ezberdinetan, aisialdi eta kirol ekintzak,...Data eta prezio ezberdinak. Aurreinskripzio epea: maiatzaren 16ra arte.
- Hizkuntz egonaldiak: ingelesa Segurako aterpean, 2 aste-ko egonaldiak. 14-17 eta 18-29 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Kuota: 45.000 PTA. Aurreinskripzio epea: maiatzaren 16ra arte.

Auzolandegiak

- Zozketan parte hartu duzuenentzat berri on bat: Arrasatek irten barik, Gazte Bulegoan bertan egin dezakezue behin-betiko inskripzioa.
- Atzerriko auzolandegien batetara joateko interesa duzenoi: SCI elkarteak aurtengo eskaintza ateratzear dago.

Bekak

- Basauriko Udalak "Juan de Otorala" sorkuntza artistikoa beka deitu du. Eskultura, Pintura eta Grabatua. Epea: maiatzak 20.

Ikastaroak

- Hastapen mailako Argazki ikastaroa, larunbat goizetan. Maiatzaren 11tik ekainaren 15era. Matrikula: 3.000 PTA, 1.500 ikasle eta langabetuentzat.

Lana

- Basauriko Udal Kultur Etxeak Harreman Publikoetarako lanpostua betetzeko deialdia egin du. Goi batxilergoa titulua edo parekoa izatea eskatzen da. Epea: maiatzak 12.

Lehiaketa

- * Arrasateko San Juan Jaiak 1986 kartel lehiaketa. Herrian bizi edo erroldatuta daudenek bakarrik har dezakete parte. Epea: maiatzak 17

"Gaztea bada eta, gainera, polita dela badiote, zergatik ez nuen, bada, maite izango?".

"Yo, LUCRECIA BORGIA"
CARMEN BARBERA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



Zer nahi, huraxe izan!



Matrikula
Maiatzaren 2tik 17ra



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA
INFORMAZIO SAILA
900 - 10 80 80

UNITED COLORS
OF BENETTON.



Maialako Errabala, 13 • ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) • Tfnoa: 79 50 78 • ARRASATE